

BERGARA

102. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, apirilak 2

**ERRAMU
ZAPATUA:
GANADU ETA
NEKAZAL
PRODUKTUEN
FERIA
LARUNBATEAN**

**PAZKUETAKO
JAIETAKO
EGITARAU
IA PREST**

KIROLAK

**GIMNASIA
ERRITMIKAKO
ESKOLARTEKO
TXAPELKETAKO
KANPORAKETAK
LARUNBATEAN**



Zure jaunartze argazkietarako

KIÑU

Barrenkale, 35 BERGARA ☎ 76 58 05



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea. -
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO
GARANTIA**

BERRIGARA astekarria
Tinoa. eta Faxa: 76 03 97
Errotalde jauregia, 20.570
Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.
Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labalen.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkoroberezar, J. M. Elexpuru,
J. Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain,
N. Alzelai, A. Lete, J. A. Bengoa,
M. Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuna,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifú.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta erlitzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

KORRIKA

Kaleak jendez gai-
nezka egon ziren asteazken arratsaldeko
lehen orduan AEKren
euskararen aldeko fes-
tari ongi-etorria ema-
teko.

Arratsaldeko 3.45
aldera heldu zen Kor-
rika Antzuolatik Ber-
garara eta herriko kole-
ktibo ezberdinak ge-
hitu ziren AEKren festa
honetara, Bergarako
kale eta bere ingurutan
7 Km. beteaz, ondoren
Elgetako bidea hartzen
zuelarik.

Besteak beste, EHE,
Kukuma hankapalu
taldea, Aranzadi Ikas-
tola, Mariaren Lagundia
Ikastola, Herri Bata-
suna, Artatse Elkarte,



Gaztetxea, Batxillergo
Institutua, Lanbide
Heziketa Institutua,
Xamatx dantzataldea
eta JARDUN Elkarteak
hartu zuten parte.

Ingandean, Bilbon a-
maituko da aurtengo
edizioa, ia Euskal He-
rri osoan zehar 2.100
Km. inguru bete on-
doren.

Asteazkenean AEKren aldeko euskara festa herrira heldu zen

ITURRI ONETIK

Beste bergarar bat Cho Oyura

Amaia Arantzabalek iazko irailaren 17an Cho Oyuko (8.189 m.) gailurra zapaltzea lortu bazuen, zortzimilako bat egiten zuen lehen emakume euskalduna izan zelarik, aurtengo udan beste bergarar bat joango zaigu Katmandu aldera Cho Oyuren tontorrera igotzeko asmoz.

Juan Ramon Garitano, 34 urteko angiozartarra, Goierriko beste lau lagunekin batera abiatuko da abuztuaren erdialdera Himalayaruntz. Suerte.

ESAN DUTE

"Korritu ezinagatik ekin nion motor zaharrak berrizteari. Motorrentzako pieza asko neuk egiten ditut, baina beste asko kanpotik ekarri behar dira. Hemen ez dago industria auxiliarririk eta horregatik Inglaterratik bidaltzen dizkirate, bertan edozein urte eta modelotako piezak lor daitezkeelako".

AGUSTIN LAZPIUR
Enpresaria
EGUNKARIA

"Gernika, kontseilu honetatik [Europar Kontseilutik] bultzatzen diren baloreen merezigarria da eta, era berean, domina honekin Euskadiren lana Europan sartzeko ahalegina errekonozitu nahi da".

IMANOL BOLINAGA
EAJko Senatorea
GERNIKAKO DEIADAR
ALDIZKARIA

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



**ALERTA MAXIMA**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00 eta 19.30.

Igandea: 17.00, 19.30. eta

22.15.

Astelehena: 19.30.

**EL ULTIMO MOHICANO**

Igandea: 11.30.

**RESERVOIR DOGS**

Asteazkena: 22.30.

Ostirala: 17.00, 19.30 eta

22.30.

Zinea**▼▼ Steven****Seagalek***(Buscando justicia)*

tipo gogorraren

papera egiten du

bere filma

guztietan. Honetan

ere bere giharrak

dira protagonista

nagusiak eta

kolpeak eta tiroak

ez dira faltako.

Sukaldaria izateaz

gain, *USS Missouri*

untziko heroi

bihurtuko da.

▼▼ Daniel Day**Lewis eta****Madeleine Stowe**

erreparto buruan,

1757 urtean

frantsesek eta

ingelesek New

Yorkeko estatuaren

kontrolaz jabetzeko

gorabereherak

azaltzen zaizkigu.

▼▼ Quentin**Tarantinoren** filme

hau aurtengo

errebelazioetako

bat dugu. Gaur

egungo zine

beltzaren eredu,

hainbat sari lortu

ditu munduan


zehar. **Harvey****Keitel, Michael****Madsen eta Joe****Cabotekin.****Erakusketak****▼ Pol Pol Argazki Taldeak**

talde modura antolatzen duen le-

hen argazki erakusketa ikusgai

izango da igandera arte, apirilak 4,

Kultur Etxeko erakusgelan.



Juan Antonio Unzueta argazki bat

▼ Jubilatuen tailerretako

lanak apirilaren 6tik 18ra bitartean

ikusi ahal izango dira Kultur

Etxean.

Farmaziak**▼ Larunbata 3:** Camacho.**▼ Igandea 4:** Camacho.**▼ Astelehena 5:** Puy.**▼ Asteartea 6:** Guallar.**▼ Asteazkena 7:** Estella.**▼ Osteguna 8:** Mozos.**▼ Ostirala 9:** Camacho.**Ogia****▼ Igandea 4:** Konde.

ITURKINTZA



ITURKINTZA

ARISTEGI - TOLA

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17

URRATS**Kafetegia**

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92

BERGARA

Ikuskizunak

▼ **Tanttaka antzerki taldeak** "Adagio violentissimo" muntaia eskeiniko du igandean arratsaldeko 7etan Zabalotegiko aretoan.

Adagio Violentissimo,
Tanttakaren azken lanean Mireia Gabilondo bergararra ikusteko aukera izango dugu.



Aukeran

▼▼ **Bertso-jaialdi** bikaina iragarri da larunbaterako, hilak 3, Erramu Sapatuko Feriaren ekitaldien barne. Bergarako Udalak antolatuta, gaueko 10.15etik aurrera Novedades aretoan honako bertsolari hauek arituko dira: Eguzkitze, Lazkano, Lizaso, Gorrotxategi, Loidi-Zaletxe eta Solozabal. Laxaro Azkune izango da gai-jartzailea.



Kirolak

▼ Eskubaloia:

- **Bergara-Mutriku** (jubenil neskak). **Larunbatean** 20.00etan.
- **Bergara-Portugalete** (senior gizonak). **Igandean** 12.30etan.

▼ Futbola:

- **Bergara-Zarautz** (Preferente maila). **Igandean** 17.00etan Agorrosinen.
- **Bergara-Sto. Tomas Lizeoa** (2. mailako Erregionala). **Larunbatean** 17.15etan Ipintzan.
- **Bergara-Zumaiako** (Lehen mailako Jubenila). **Larunbatean** 15.30etan Ipintzan.
- **Bergara-Urola** (2. mailako Jubenila). **Igandean** 11.15etan

Ipintzan.

- **Bergara-Orioko** (2. mailako Kadetea). **Larunbatean** 14.00etan Ipintzan.

- **Bergara-Urki** (2. mailako Infantilak). **Igandean** 9.45etan Ipintzan.

- **Real Sociedad-Universidad Católica de Chile** (jubenilak). **Ostiralean**, hilak 9, Setan Agorrosinen.

- Kirol Eskolako Futbol-7 txapelketa larunbat goizean Ipintzan.

▼ Pelota:

- **Bergara-Alsasua** (kadeteak). **Larunbatean** Setan Osintxun.

▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Labegaraieta-ko Kiroldegian.


5

PROFESIONALAK

- Soroa III.a-Oregi/Ansotegi-Galardi.
- Etzaniz-Galarza III.a/Retegi II.a-Martinikorena.
- Intxaurren-Buenetxea/Badiola II.a-Alberdi III.a.

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Bergarako Udal Pelotalekuan.

PUB ROSA



Irala, 1 ☎ 76 38 57

Amets



- **HERGO** eta **HOBBY** karabanak eta **RIVIERA** autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Bergarako besarkada izan daiteke

Ondotxo ezagutzen ditugu Bergarako giro eta elkarteak, eta beldurrik gabe esan dezakegu talde sinatzaileen arteko gehientsuenak erdaraz funtzionatzen dutela.

Dena dela, ondo iruditzen zait horrelako ekimen batetan jendeak parte hartu eta bultzatzea (nahiz eta erdaraz funtzionatu) eta batez ere hemendik aurrera euskaraz funtzionatzeko eta produzitzeko ahaleginak eta bitartekoak jartzen badituzte. Baina jarriko diren ahalegin eta bitartekoetan daukagu gure kezka.

Nolako plangintza eta zer programa daukate sinatzaileetarik askok euskaraz funtzionatu ahal izateko? Zenbaterainokoa da hauen borondatea?

Oso erraza da paper batean firma bat botatzea eta oso polita argazkitan irripartsu ateratzea, baina emandako hitza bete egin behar da. Urtebete pasa ondoren lehen bezala gaude eta hitzarmenaren bigarren urtebetean zer? Aurtan bezala?

Guk ez dugu Karlistadetako besarkada ospetsu hura bezalakorik nahi beraz, badakizue: espabilatu eta animo herria euskaldundu arte.

Patxi Olabarria

Gaztetxea dela eta...

Ez dut elizak (Apezpikutzak), berarena izan arren, Gaztetxeko lokalaz jabetzeko duen legezko eskubideei buruz hitz egingo. Horretarako, horretaz erabakia hartuko duen epaiketa burutzen ari bait da, baina nik neuk, ez dudana zalantzan jartzen Bergarako gazteek lokal horiek erabiltzeko duten eskubide morala da.

Herri batetako gazteriaren arazoan konponbidea bere osotasunean eta, horiekin batera, lokalen adjudikazioa Udaltxearen menpe egotea Apezpikutzaren menpe egotea baino logikoagoa dela egia bada ere, egia da era berean, garai batetan Elizak utzi zizkiela lokal horiek Bergarako gazteei, nahiz eta, nire iritiz, dudu-dudako altruismoarekin izan, pentsatzen bait dut Elizak nahiko ondo finkatuta zituela bere helburuak "Juventudes Parroquiales Vergaresas" eraiki zuenean.

Egia da, bere fundazioaren hasieratik esango nuke nik, bertatik pasatako gazteek burutu zituzten eginkizunak eta hartu zituzten jarrerak ez zirela beti Elizaren gustokoak izan, baina Elizari Bergarako gazteak gustatu ala ez, gaur egun lokal horiek erabiltzen dituzten gazteek ez dute besterik egiten, sortzen ari garen gizarte honek zein egoerataraz eraman dituen azaldu baino.

Batzutan irudia ez da atsegina egiten eta gizarteak bere lotsak ezkutatu egin

nahi ditu, baina gure gazteria izatea jarraitzen du eta lokal horiek, beti bezala, egiten ari garen gizartearen eskaparatea besterik ez dira.

Neuri behintzat iruditzen zait Elizak lokal horretan zituen eskubide moral eta historikoak guztiz galdu dituela eta, bere postulatu teorikoei jarraituz, hobe lukeela lokal horiek utzi eta gazteriak egokien iruditzen zaion bezala aurre egin diezaiola guk eskaintzen diogun egoerari, lokal horiek gabe nahiko "Katekesis" premia bait daukagu "helduok"

Guzti hau Elizaren ondasunean jatorriaz, eta horretaz benetan duen eskubide morala, eta ez legala, ez aipatzearen.

Alex Barruso "Juventudes Parroquiales"eko direktibako kidea

OHARRA:

Datorren astean, Aste Santua dela eta, ez da BERRIGARARik izango. Hurrengo alea, 103. zka. alegia, apirilaren 16an helduko zaizue etxera. Bien bitartean, ondo igaro jaiak.

Tiira ba!



Josu Okina

Euskal kanten ikastaroa


JARDUN Elkarteak Mikel Markezekin euskal kanten ikastaroa antolatatu du apirilaren 20tik maiatzaren 20ra bitartean. Plaza mugatuak izango dira eta interesatuek JARDUN Elkartearen eman beharko dute izena (Masterreka 13, 760819 telefono zka.) apirilaren 15a baino lehen, bazkideek 2.000 pta. eta gainontzekoek 2.500 ordainduz.

Zozketa

2.468 zenbakia saritua izan da Lanbide Heziketako ikasleek Ikas-Bidaiaren alde antolatutako zozketan. Boletoaren jabeak 4 pertsonarentzako bazkaria irabazi du.

Erramu Zapatuko Feria ospatuko da larunbatean Bergaran

Bergarako Udalak Diputazioaren laguntzaz antolatuta, larunbatean Erramu Zapatu Feria ospatuko da Bergaran. Goizeko 9^{ter} dietan feria zabalduko da Ibargarai, Fraiskozuri eta Simon Arrietan. Arratsaldeko ordu bat^{er} dietan Larrañaga eta Egileor bertsolariak bertso-saioa eskeiniko dute Aranzadi Ikastolaren patioan. Ondoren, 4^{ter} dietan, ohizko pelotatuak jokatu dira Udal Pelotalekuan. Ordu bete beranduago herrikirolak jokatu dira Seminarioan Mugerza eta Elorriaga aizkolariak eta Atxa anaiak harrijasotzaileen parte hartzearekin. Amaizteko, 22.15etan bertso-jaialdia izango da Novedades aretoan. Bertan, Laxaro Azkune gaitortzaile arituko dela, Eguzkitze, Lazkano, Lizaso, Gorrotxategi, Loidi-



Ikusmin handia sortzen du Erramu Zapatuko Feriak.

Zaletxe eta Solozabalek hartuko dute parte.

Feria dela eta, larunbatean Ibargarai kalean trafikoa moztu egingo da eta Frontoitik Beheko Estaziora joateko Zurradero kaletik zehar joan beharko da, San Antonio eta Torrekua aldetik Bolura, San Martin Plazatik zehar eta bestelako norabide guztiak bariantetik izan-

go dira.

Aurtengo Erramu Zapatuko Feriak 1.800.000 pta. inguruko aurrekontua du. Joseba Aizpurua Udal Nekazal teknikariaren esanetan, *"ganadutik aparte, azken urteotan nekazal produktuen erakusketan parte hartzeko eskaerak asko igo dira. Interes handia ikusten da"*.

Hezkuntzaren etorkizuna

Asteartean jende ugari bildu zuen, Aranzadi Ikastolak antolatuta, UNEDen Mirari Bereziartua Ikastolen Konfederakuntzako idazkariak emandako *Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Ikastolak* izenburuko hitzaldiak.

Ikastolek maiatzaren 25erako ikastetxe publiko edo pribatu izateko erabakia hartu beharko dute eta legea sakonki aztertu eta erabaki hori hartzerakoan ahalik eta informazio gehiengo izateko antolatu dira hitzaldi hauek. Asteartean, hilak 6, *Ikastolak eta Euskal Eskola Publikoaren legea sindikatuen ikuspegitik* izeneko mahai-ingurua egingo da 19.30etatik aurrera UNEDen.



MEKOLALDE TABERNA

Apirilak 8 eta 9 (Ostegun eta Ostiral Santu egunetan) itxita.

10etik aurrera berriz ere zabalik

Mekolalde auzoa BERGARA ☎ 76 50 18

IRUK-BAT
IGELTSERITZA

☎ 76 24 74 20590 SORALUZE
Biltegia eta bulegoak: Zubieta, 24 behea
☎ 76 36 71 20570 BERGARA

Jubilatuen irteera eta erakusketa

Jubilatuetan apirilaren 9an Hondarribiko prozesiora joateko irteera antolatu da. Irteera goizeko 9 terdietan egingo da Beheko Estaziotik, ordubietan Errenteriko Egoitzan bazkalduko dute eta buelta arratsaldeko 8etan izango da. Prezioa 1.600 pta.koa da, plaza mugatuak dira (55) eta izena emateko azken eguna apirilaren 9a duzue. Bestalde, apirilaren 6tik 18ra bitartean Jubilatuen tailerretako (eskulanak, gantxilloa, marketeria eta margo-lanak) erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean. Erakusketan parte hartzeko interesa dutenek beren lanak Jubilatuetera eraman beharko dituzte apirilaren 4a baino lehen.

EAJren Aberri Eguna

Bergarako EAJ-PNVk dei egiten die bere alderdikide eta lagunei datorren apirilaren 11n, Gipuzkoa mailan, Donostian ospatuko den Aberri Egunean parte hartzeko. Autobus eta bazkari txartelak Batzokiko tabernan eskuratu daitezke.

Bergaran atxiloketa

Joan den igandean Bergarako Ertzantzak Ricardo M.G. 22 urteko bergarar gaztea atxilotu zuen, Bergarako sagardotegi batetako makina txanponjale batean lapurtzeagatik.



Jaietarako bi hilabete geratzen badira ere, egitaraua nahiko aurreratuta dago.

Nobedadeak jaietarako

Zezen korridak, entzierroak eta sukaldaritza lehiaketa

Pazkuetako jaietako egitaraua ia prest dauka jadanik Udal Jai Batzordeak. Ekitaldi batzuk zehaztu barik daude oraindik eta egitaraua finkatuta dagoenean, horren berri emango du Luis Abajok, Kultur Taldeak, Jaiak eta gazteria zinegotziak. Hala ere zerbait aurretatu dezakegu.

Jaiak maiatzaren 28tik ekainaren 1a bitartean ospatuko dira aurten. Baina bi aste lehenago, maiatzaren 16an, Haurren Euskal Jaia ospatuko da eta maiatzaren 23an, ostera, Musika Eskolako Udaberriko Kontzertua Mariaren Lagundian.

Jaiei ostiralean (maiatzak 28) emango zaie hasiera arratsaldeko 7.45etan Xamatx dantza taldearen Ikurrin Dantzarekin. Aurten ez da Bitorianatxoren jeitsierarik izango Udaletxearen berriztapen lanak direla medio. Hala ere Jai Batzordeak ez du erabaki zehatzik hartu oraindik, Bitorianatxo jaietan

egongo den ala ez.

Musika ekitaldiei dagokienez, aurten ere rock kontzertuak antolatuko dira Bideberrin ostiral, larunbat (Platero y Tú) eta astelehen gauetan. Dantzaldiak ere izango dira Plazan eta Espaloian. Larunbat gauean, berriz, Golden Apple Quartet eta Duo Plaentxiren saioa izango da Mariaren Lagundian.

Aspaldian antolatu ez dena eta aurten berreskuratu dena, bestalde, Elkarte arteko sukaldaritza lehiaketa da. Larunbatean eguerdiko 12etan Simon Arrieta plazan izango da hori.

Nobedade haundiena, antzina-ko zezen plazan jarriko den zezen plaza portatila da. Larunbat, igande eta astelehen arratsaldetan zezen korridak antolatuko dira eta asteartean kuadrilendako jokuak. Eta igande, astelehen eta astearte goizetan, berriz, entzierroak Barrenkaletik zezen plazaraino.

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



Astehenekoko Plenoa egin zen Kultur Etxeko gela jendez bete zen.

Langileen mozioa erdixka onartu

Sindikatuaren mozioa puntuz puntuz aztertu zen Plenoon

Astehenean izandako Plenoon Udalak ELA, LAB eta CC.OO sindikatuek aurkeztutako mozioaren bi puntu onartu zituen, hirugarrenak HB eta EAren oneritzia bakarrik jasozten zuen bitartean.

EAJk mozioa puntuz puntu aztertzea erabaki zuen eta horrela, esan bezala, mozioaren lehen bi puntuak adostasuna azaldu zuten alderdiek aho batez; lehenean Udalak egungo krisi egoera larririkiko sentsibilitatea azaltzea eskatzen zuten sindikatuek, eta bigarrenean, berriz, "gure azpiegitura ekonomikoa defendituko lukeen politikaren premia eta industriaren suspertze eta hobetzea" azpimarratzen zen, "herritar guztiek lanaren bidez etorkizun duin bat lantzeko eskubidea izan dezaten". Hirugarren puntuan, sindikatuek enpleguaren inguruan martxan jarri duten kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainarekin

Udalak bat egitea eta, bide batez, herritarrei apirilaren 24ean egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egitea eskatzen zen. Honetan, sindikatuek, HB eta EAren aldeko botuak jaso zituzten, eta EAJ (zinegotzi baten abstentzioa ezik) eta PSE-EEren kontrako botuak (Alvaro Esparza ere abstenidu egin zen).

Koldo Pereirak (EAJ), boto espelikazioan, sindikatuek deituriko mobilizazioak ez zituela apoiatzen esan zuen, "azken batean EAJk krisia konpontzeko duen estrategia-arekin zerikusirik ez duelako. Hala ere arazo honi lehentasuna ematen jarraituko dugu". Jose Luis Elkorok (HB), berriz, "guztiok onartzen ditugun puntu batzuk egon arren, ekintza batzuetan parte hartu behar denean batzuk atzera egiten dute. Udalak langileei kasorik ez egitea gaizki ikusten dugu" adierazi zuen.

Ur bedeinkatuaren ontzia berreskuratu

Urtarrilaren 21ean desagertutako Mariaren Lagundiko kanposantu pribatuko kaperako ur bedeinkatuaren ontzia San Lorentzoko zabortegean berreskuratu zuen pasa den larunbatean Ertzantzaren patrulla batek, Bergarako herritar batek abisatuta. Udala Kultura teknikariek eta Mariaren Lagundiko arduradunek errekonozitu eta gero, orain Mariaren Lagundiko ikastetxean Soledadeko ermita zenaren kanpaiaren ondoan jarriko da, ur bedeinkatuaren ontzia ere Soledadeko ermitatik ekarri bait zen kanposantuko kaperara.

Presoen egoeraren salaketak

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideak (presoen familiarren kolektiboak) Cadizeko Puerto-2 kartzelako zuzendaritzak Jose Mari Etxaniz preso bergararra isolamenduan sartu eta jipoitzea salatu dute, Etxanizen ama hil ondoren presoak senitartekoekin telefonoz hitzegitea behin eta berriro eskatzeagatik. Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideak euskal presoen egoera eta Xabier Oregi "Panti"ren isolamendu egoerari buruzko mozio bana aurkeztuko dituzte Bergarako Udaleko Plenora.

ORTZI
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

HEMEN
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

Jaietako txoznak

Kultura, Jaiak eta Gazteria Batzordeak dei egiten die Pentekoste Jaietan txoznak jartzeko interesa duten taldeei asteartean, hilak 6, arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean egingo den bilerara ordezkari bat edo bi etor daitezten. Bertan aurtengo antolaketa azaldu eta, bide batez, eskariak egiteko epea zabalduko da.

Bergarako 29 margolari

Udalak eta Kutzak Bergarako 29 margolarik Ortonovon prestatu zuten erakusketa "erakusketa ibiltari" modura eskeintzeko akordioa sinatu zuten. Besteak beste, Oñati (apirilak 4-maiatzak 7), Zumarraga (maiatzak 21-30) eta Pasaian (ekainak 3-20) ikusi ahal izango da.

Aste Santuko zinea

Novedades zine-aretoan honako filme hauek iragarri dira Aste Santurako: *La marriña* (apirilak 8, osteguna), *Accion mutante* (apirilak 10, 11 eta 13) eta *En nombre de Cain* (apirilak 12).



Kirol talde zein kirolariek Udalaren laguntza jaso ahal izango dute.

Kiroleko diruaren araudia

Udalak dirulaguntzak emateko araudi berria onartu du

Asteleheneko Plenoan, Bergarako Udalak herriko kirolari eta kirol taldeei dirulaguntzak emateko araudia onartu zuen. Udalak talde ezberdinak subentzionatzen jarraituko du, beti ere oinarrizko kirola (eskolarteko kirola, eskola kirola) eta kirol federatua indartzeko asmoz. Neurri txikiagoan, kirol ihardueren antolaketa edota arduradunen teknifikazio maila hobetzeko laguntzak ere izango dira.

Horrela, alde batetik, oinarrizko kirolean eta kirol federatuan

murgildurik dauden kirol taldeak eta, bestetik, kirol profesionalean edota amateur konpentsatuan dihardutenak desberdinduko dira dirulaguntzak banatzeko orduan.

Eskabideak aurkezterakoan, Udalak hainbat dokumentazio eskatuko die talde eta kirolari guztiei. Ondoren, Udalak finkatu duen puntuazio baten arabera jasoko dute dagopkien dirua (kirolari eta entrenatzaileen kopurua, Kirol Eskola, parte hartzen duteneko kompetizioak etab. luze bat hartuko dira kontutan).

Saunier Duval
DISE



GALDARAK ETA GAS BEROGAILUAK

DICOMAN, E. M.

SAN LORENTZO, 21
20570 BERGARA
☎ 76 06 61



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

GURE AMETSA

San Migelen magalean

Gure Ametsa elkarteko bazkide den Andres Fernandezek aipatu digunez, Zumelaga zaharra itxi zutenean San Antonio auzoa taberna gutxirekin geltitu zen. Arrazoi hau zela eta, auzoari giro pixkat emateko ideiarekin, 50 auzokide elkartu ziren Gure Ametsa elkarte sortzeko asmotan. Elkarteak 20 urte bete berri ditu, 1973.eko Martxoaren 25.ean zabaldu bait zen lehen aldiz.

Momentu hauetan ere 50 bazkide dira Gure Ametsan, baina beste 11 jubilatatu daude. Gauregun dauden 50 bazkide hauek, nagusienak ezik, ez dira auzokoak. Andres Fernandezek azaldu zigunez, San Antonion oso gazte gutxi bizi bait da gaur egun. Bazkide guzti hauen batzbesteko adina 40 urtekoa da gutxigarabehera.

Diru kontutan sartzen bagara, urtean 1.750.000 pztako kaja egiten dute

kontsumoarekin. Hortaz gain, bazkideek hiru hilabetero 4.000 pztako kuota ordaintzen dute.

Faltekin berriz ez da biltza bat ere ondo. %5 inguruan ibiltzen dira. Batzar Orokorrean, kontsumoa ordaintzeko modua aldatzea erabaki zuten ia honela arazoa konpontzen zuten. Lehen, aste guttiko kontsumoa papeleta batean joaten ziren apuntatzen, eta astelehenean buzoian sartzen zuten. Orain kontsumizio bakoitzeko ordaintzea erabaki dute.

Gure Ametsa elkartean, gehien bat, astebuka-



1984ko abenduan Gure Ametsan antolatutako Mus Txapelketa.

eretan nabari izaten da mugimendua. Astean zehar berriz oso lasai egoten da.

Elkartearen eguna San Antonio egunean ospatzen dute afari batekin.

Lehen tanborrada ere egiten omen zuten, baina gaur egun ospakizun hori galdu egin da. Egun honetan bertan, Gure Ametsa elkarteak ermitakoe-kin batera, luntx bat eskeintzen dute auzoko jubilatuentzat.

Sukaldariak direla eta, Andresek bi aipatu dizkiugu. Alde batetik Jesús Jauregi, eta bestetik Luis Alberdi. Bi sukaldari hauek danetik gertatzen omen dute eta ondo.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1973.eko martxoaren 25ean.

BAZKIDEAK: 50.

HELBIDEA: Aritzeta San Miguel, 6.

PRESIDENTEA: Jose Orgaz.

ELKARTEAREN EGUNA: San Antonio eguna.

URTEKO KUOTA: 16.000 pzt.

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafa kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. Tfnoa: 76 05 01

ZUBIETA
elektragintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

Bidaiek eta parrandek ez dute edaderik

Gero eta jubilatu gehiago, etxetik kanpo oporretara eguzkitara

Jubilatu ostean badirudi askori bidaiatzeko eta leku berriak ezagutzeko gogo sartzen zaiola.

Leku asko daude oraindik ezezagunak direnak eta horrenbeste denbora libre izanda eta bidaiak merke eta interesgarriak direnez urte osoan zehar mundua ezagutzera irteten dira gure nagusiak. Bidaia horiei buruz hitz egiteko, bidai agentzia batetara, jubilatuetakoa asistente sozialarengana eta asteartean bertan Mallorcara joan den Joxe Lazkanorengana jo dugu.

Urtean zehar bidaiatzeko aukera ugari dituzte nagusiek, alde batetik jubilatuetan antolatzen diren txangoak eta bestetik INSERSOK estatuko edozein lekutara antolatzen dituen bidaiak arrakasta izaten dute urte osoan zehar.

INSERSOK eskeintzen dituen bidaien artean arrakasta haundiena eguzkia eta hondartza eskaintzen dituzten bidaiak dira. Bergaran INSERSOren bidaiak eskeintzen dituen agentzia batera jo dugu eta bertako langile batek esan digu-

nez "bidai horiek egiteko urtean zehar 200 eskaera baino gehiago ditugu, baina denek ez dute joateko aukera, zerrenda bat egoten da eta bidaiabakoitzeko dagoen jende kopurua betetzen denean berandu apuntatutakoak kanpoan gelditzen dira".

Lehen esan dugun moduan oporretara joateko nagusiek gustokoen dituzten lekuak, eguzkituak eta hondartza dutenak dira, eta horiek aukera guztiak dituzte, "aurten Kanarias, Matalascañas, Ibiza, Mallorca, Torremolinos, Gandia, Benidorm izan dute

aukeran jubilatuak. Kanarias aurten berria zen eta eskaera asko izan ditugun arren Bergaratik inork ezin izan du joan, zeren Gipuzkoa osorako 36 bidai zeuden bakarrik eta hona heldu denerako bidaia guztiak hartuak zeuden" adierazi digu agentziako langileak.

Bidai hauek 15 egunetakoak izaten dira eta gainera 3 izarretako hoteletan pentsio osoa izaten da, honek badirudi garesti irtetzen duela, baina agentziako langileak dioenez "Baleares eta Ibizara joateak 24 mila pezeta balio ditu, penintsulara joateak

20 mila pezeta balio ditu, baina prezio horiek merkeak dira bidai hauek eskaintzen dituzten abantailetarako, zeren 24 orduz hotelean medikua dute, horrezaz gain Balearretara begazkinean joaten dira eta hotelean bertan egun osoan zehar animazioadute". Hori bai, bidaia horietara joan ahal izateko derrigorrezkoa da jubilatua izatea eta 60 urte baino gehiago izatea; baina bidaiak ez dute urte osoan zehar irauten "penintsularako bidaiak urritik martxora bitartean izaten dira eta maiatzean Ibiza eta Kanariaseko bidaiak



Jose Lazkano eta Maria Jesus Perez, pasa den asteartean 15 egunetarako INSERSoko bidaiak aprobetxatuz, Mallorcarantz irten ziren.

- Zuen lehenengo bidaia da?

- Ez, ni, Joxe, uztai-lean aurre jubilatuta nintzen eta hori aprobetxatuz azaroan Gandia-ra joan ginen, gero urtarrilean Ibizan izan ginen eta orain Aste Santua pasatzera Mallorcarara goaz.

- Bakarrik zoazte?

- Ez dut uste, zurrumurru batzuk daude Bergaratik jende asko joango dela, gu beti beste bikote batekin

joaten gara bidai hauetara.

- Ze baldintza bete behar dira bidai hauetara joateko?

- Jubilatua izan eta besterik gabe apuntatu eta bidaiatzera joan.

- Lehen horrelako bidaiak egiten zenituzten?

- Ez, lehen beti Pirineotara kanpinean joaten ginen eta gogoratzen dugu behin, Aste Santuan Jacan 9 gradu zero azpitik izan genuela.

- Bidaia hauek kanpina baino hobek?

- Guk Pirineotan fenomeno pasatzen genuen, mendia guretako dagoen onena da.

- Mallorcan zer egingo duzue?

- Ibili, egunean zehar kilometro pila bat egiten ditugu oinez.

- Eta gaez?



Joxe Lazkano (ezkerretik hasita lehenengoa), bere emaztea eta lagun batzurekin Sondikako aireportuan Mallorcarantz irten aurretik.

- Dantzan, hotelean gauero jaia egoten da, 12 ak arte orkestina batekin jo ta sua egiten dugu dantzan.

- Ligerik egoten al da?

- Bueno, gu ez gara

horretara joaten, baina danerako jendea dago. Ligatzera joaten denak bilatzen du, zeren alar-gun asko joaten da bidai hauetara eta hortara doanak aukerak izaten ditu...

Joxe Lazkano, jubilatua eta Mallorcara bidean

bukatzen dira, jendeak urrian, azaroan eta abenduan ez du nahi izaten bidai hauetara joan eta orduan martxotik aurrera jendez gainezka egoten gara. INSERSoko bidaiarik udan ez dago eta orduan nagusientzako eskeintza bereziak izaten dira, baina hori agentzien gauza da".

"Bidaietan parranda nagusi"

Jubilatueta batzorde bat dago eta batzordeak hilean behin erabakitzen du ze bidai egin, norma-

lean bidaia hauek egun baterako izaten dira, horrezaz gain Diputazioak ere antolatzen ditu jubilatuentzako bidaiak.

Aurten Diputazioak "Xacobeo" urtea dela eta, bost egunetik behin Galizara joateko bidaiak antolatu ditu, eta bidaia hauek bost egun irauten dute autobusez Galizaraino joaten dira eta Santiagon bi egun pasa ondoren, Rias Bajasera eta Portugalera txangoak egiten dituzte, bidaia hauek balioa jubilatuaen diru sarreren arabera izaten da. Balnearioetara egiten dituzten bidaiak ere harrera ona izaten dute jubilatuen artean.

Bidaia hauek 15 egunekoak dira eta 3 balnearioetara joateko aukera dute, Arnedillora, Zestoara eta Fiterora.

Baina Bergaratik kanpo negua pasa nahi duenak ere baditu aukerak, Diputazioak antolatzen ditu Guardamar del Seguran, Alicanten, bi hilabete ta erdiko egonaldiak. Hauek ez dira izaten oporrak, Egoitzaren ordezkioak baizik. Baina jubilatuetan arrakasta gehien dituzten bidaiak egun batekoak izaten dira, Mertxe Agirrek, asistente sozialak dioenez "iaz Asturiasera hiru egunetako txangoa antolatu genuen, baina ez

zuen arrakasta gehiegirik izan, hemen gustatzen zaiena egun bateko bidaiak dira. Normalean txango bat antolatzen dugunean bilatzen dugu gauzak ikustea, monumentoak ea... baina jubilatuek gehien eskatzen dutena ondo bazkaltzea eta ondoren dantza izatea da".

Mendira irteerak ere egiten dituzte: "urtero Legazpiko eta Errenteriko jubilatuekin Gorrara mendi irteera egiten dugu eta mendira joan ondoren lagunarteko bazkaria izaten dugu eta gero Bergarakoak joaten gara eta Jaizkibelera egiten dugu irteera".




Appéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**Jubilatuentzako bidaietara
joatea gustatzen zaizu?**



Jose Rodriguez
80 urte, jubilatua

Seme-alabekin alde batetik bestera ibiltzen naiz eta ez daukat denborarik. Hala ere ez zait gustatzen.




Adelaida Soria
75 urte, jubilatua

Sekula ez naiz joan. Gustatuko litzaidake joatea baina ez naiz atrebitzen hain urrun joaten.

**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI



Karmen Azpeitia
77 urte, jubilatua

Benidormera joan izan naiz eta oso ondo. Baina urteak dira ez naizela joan... Dena dela, ideia oso ona da.



Abundio Lopez
70 urte, jubilatua

Dantzarako edo afizioa daukan batentzat primeran daude. Apartamentutan oso ondo pasatzen ginuan.

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

TOSHARE

**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29. Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

ARTANI
OIHALAK
KONSUELO IBARRA

ORAIN BEHERAPENAK

**DENDA TOKIZ ALDATU DUGU.
ORAIN BONI LASKURAIN
IBILTOKIAN AURKITUKO GAITUZU.**



Aita utzi izatearen aukera

Azken urteetan ezaguna bilakatu zaigu, zenbait pertsonai ospetsu lekuko, legalki eta indarrez, hortan baita honako berezitasuna, aita izatera iristeko posibilitatea.

Non datza arazo honen zergatia? Oso sinplea da. Kasu askotan ume baten egiazko aitak seme horrekiko duen aitatasuna ez duela onartzen. (Normalki hauxe izaten da ohizko kasoa nahiz eta beste adibide batzuk ere gertatzen diren). Aitak ukatu ondoren arazoari irtenbide bat eman nahi badio, haurrak edo bere amak epaitegietaara jo beharko du.

Beste alorretan bezala, geroztik oinarritzko arazoa frogara izango dugu; eta zehazki aita eta seme-alabaren odola konparatuz lortzen diren emaitzak; hemen ikusten baita zerikusirik duten ala ez.

Neurri haundi batean nazioartean onartuak diren 30 adierazgarri genetikoak landuz eskuratzen dira aipaturiko emaitzak.

Eta hauen arabera epaileek finkatuko dute azken epaia, zeren eta odol frogak dexenteko fidagarritasun maila dute. Baina posible da beste aukera baten aurrean aurkitzea ere: aitak edo itxuraz aita denak odol frogak egitearen aurkako joera ere har dezake. Eskubide osoa du. Baina gauzak normalki aldapaz gora jarriko zaizkio.

Dena den, epaileek honelako kasuetan epaia beste zenbait frogara (umea jaio zen garaiko harremanen aztarnak, eskutitzak...) aztertuz ere osatu beharko dute. Zailagoa, noski.

Sabin Zabaleta



Eskuinekoak eta sozialistak elkarrekin

Frantzian izan berri diren hauteskunde legislatiboek alderdi sozialistaren izugarritzko porrota ekarri digute, bostgarren errepublikan Frantziak ezagutzen zuen porrotik haundiena hain zuzen. Emaitzak hor daude, eta emaitza horien arabera 577 eskainuetatik Chirac eta Giscard D'Estaing-en arteko koalizioak 484 eskuratu ditu; alderdi sozialistak 70 eta alderdi komunistak 23. Falta diren eserlekuak eskuineko beste alderdi desberdinen esku gelditu dira.

Orain eta hauteskunde presidentzialak iritsi arte, hemendik bi urtetara gutxi gora behera, Frantziak presidente sozialista izango du eta gobernu eskuinekoa. Egoera bitxia, baina frantsez hauteskunde sistemak jasotzen duena. Bien artean harremanak nola izango diren ikusi behar, baina ez dirudi gauzak oso errez joango direnik. Mitterandek presidente jarraitzea erabaki du eta ez die lana erreztuko koaliziokei, bereziki Maastrich-eko akordioa aurrera ateratzeko baldin bada, Mitterandek europar batasuna eraikitzeke apustu gogorra egin bait du. Baina Frantzian gertatutakoa ikusita, estatu espainiarra eta hemendik gutxira izan behar diren hauteskunde orokorrak bururatzen zaizkigu. Nabaria da, dagoeneko, hauteskunde aurreko giro hori, eta gainera usaintzen da alderdi sozialistak orain duen gehiengoa ez duela hain errez lortuko, Filesa kasua eta antzeko kasuek fidagarritasuna kendu bait diete sozialistei. Dena den, ikusi egin behar.

Ane Miren Lizarralde

GOIERRI Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

P. MANSO
OPTIKA
OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, tfnoa: 76 27 86

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LEXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)




ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta
meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68



☐ Euskaltegikoak txotx!!

Udal Euskaltegiko ikasleek aurten ere *pira* kolektibo bat egin dute, hori ba ikasketak alde batera utzi gabe. Sagardotegien sasoia aprobetxatu nahirik, orain gutxi 66 bat lagunetako talde bat (bi pisutako autobus bat bete zuten) Usurbileko sagardotegi batera joan zitzaigun, sagardo ugari edan, primeran afaldu eta... afalostean dantzan ere egin zutelarik. Dударik ez, euskara ikas eta praktikan jartzeko metodo ezin hobea sagardotegiarena...



☐ Pol-Poleko direktiba berria

Orain gutxi Pol-Pol Mendizale Taldeak eginiko **Batzar Orokorren** ondoren, **Zuzendaritza Batzorde** berria aukeratu zuten bazkideek. Jon Ander Gantxegiren zuzendaritzapean honako hauek osatuko dute direktiba datozen bi urteotan. Ezkerretik eskumara: **Jon Ander Gantxegi, Xabier Larrañaga, Maite Irizar, Mikel Alberdi, Iker Etxebarria, Txema Arenaza eta Benito Cantero.**

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

□ **Institutuko ekintzak**

Bergarako **Batxillergo Institutuok** azken asteotan antolatutako ekintzen barne, UBiko ikasleek **Erramun Martirikorenaren** kantaldia (argazkian) entzun ahal izan zuten. Aurten euskalkiak aztertzen ari dira ikasleak eta Erramunek Behe Nafarroako eta Zuberoako kanta eskeini zizkien, **Jean Mixel Bedaxagarren** laguntzaz. UBiko ikasleei, berriz, **Alfonso Martinez** Donostiako Filosofia Fakultateko irakasleak Descartes en arlo zientifikoa, mekanizismoari buruzko hitzaldi bat eman berri die.



□ **Diapositiba onenak**

Aurkeztutako 42 kolekzioak (252 diapositiba guztira) ikusi eta puntuatu ondoren, **Pol-Pol Argazki Taldeak** antolatutako **Herri mailako diapositiba lehiaketaren** sariak banatu ziren atzo Pol-Polen: **Dani Santosek** lortu du lehen saria (bere diapositiba bat argazkian), **Jose Luis Feok** eta **Agustin Gurrutxagak** bigarrena eta **Juan Tabares** eta **Ramon Loiti** hirugarren tokian sailkatu dira. **Benito Canterok** Mendiko Argazki onenaren saria irabazi du eta ikastaroan parte hartu dutenen artean **Dionisio Nogales** eta **Carmen Acosta** izan dira onenak.


Zertan dibardute ba?

TXAPA IRRATIA



Berriro emititzeari ekingo dion Bergarako irrati libreak dei bat zabaldu die programaren bat egiteko interesa duten herritar guztiei. Interesatuak fitxa batzuk bete ditzakete herriko hainbat tabernatan.

EIBAR FUTBOL TALDEA



Bigarren mailan jokatzeko ari den Eibar futbol taldeak entrenamendu bat burutu zuen asteazkenean Agorro-sinen, noizean behin taldea ezagutarazteko inguruko herrietan egiten dituzten entrenamenduekin jarraituz.

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfn: 76 29 65

BERGARA

**OILAGORRA
Taberna**

Barrenkale 21, BERGARA

Umore giroan

Errekadista fiña

Plaentxiako Urlixak torloju pilla bat biar zebazen. Prixako biarra zan. Kosta ta abar agindu zetsen andik iru egunera egongo zirala. Etorri da irugarren eguna, eta lehenengo orduan bialdu dau errekadistia.

- Ugezabak esaezta emoteko torlojuak. Fabrikantiak, asarre:

- Zer uzte jok orrek, txarri arrairu orrek, txurruak dirala ala? Ganorabako txotxolua dok ori! Esai-xok arratsaldian egongo dirala.

Buelta egin dau errekadistiak eta esatetsa ugezabari:

- Esaezta eifñ barik daozeala.

- Eifñ barik daozeala!!

- Bai, eta geixao be esaezta: txarri bat zarala, txotxolo ganorabako bat.

- Eh! Ori esan deuk?

Irakitzen, artu dau telefonua eta deitzen detsa torlojugiñari:

- Zer ganora dok ori! Noizko egongo ditzuk torlojuak? Gaiñera ik esan dok ni txarri bat eta txotxolua naizela!

- Nork esan deuk?

Errekadistiak.

- Iño! Errekadista fiña daukak benetan!

Pedro Zelaia



Andres Diez Timofeva, orain dela 20 urte, Bergara Hiria Xake Txapelketan.

ANDRES DIEZ TIMOFEVA, GIPUZKOAKO XAKE TXAPELDUNA

Jokatu berri da Donostian jubenil mailako Gipuzkoako txapelketa eta bergarar bat izan da bertan irabazle, Andres Díez Timofeva, 15 urteko mutila. Orain, bera izango da maiatzean Marbellan jokatu den Espainiako Txapelketan Gipuzkoako ordezkari.

Juan Luis Bikuña.

1973-IV-1. La Voz de España.

EMANALDI BIKAINA ESKAINI ZUEN ORFEOIAK MADRILEN

Madril, apirilak 3. Txalo ugari jasoz eta jendetza agurtzera hainbat aldiz irtenaz amaitu zen Bergarako Orfeoia Radio Television Españolaren orkestra eta abesbatzarekin batera Madrileko Kongreso eta Erakusketen Jauregian eman zuen emanaldi bikaina. Odon Alonso maisu haundiak zuzendu zuen kontzertua.

Marisa Ciriza. 1973-IV-4. El Diario Vasco.

ORAIN DELA...

Etxearen goxotasuna bere barnean dago

San Miguel E. A.

San Lorentzo, 4

☎ 76 47 90

☎ 76 01 15

Isolatu zeure etxea
hotz eta zaraten kontra

ISOVER



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbor



Carlos Zengotitabengoa

Carlos Zengotitabengoak jaso du aste honetan **ZUHAIZTI TABERNA**k emandako BONOFOTOko saria.

Orain dela bi asteko argazkian agertzen zen eleizaren izena **San Jose Obrero** da, Labegaraieta auzoko San Jose Obrero, hain zuzen ere. **ZORIONAK Carlosi** eta besteek segi jokatzten!!

Zein da **baserri** honen izena?


Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____


Saria: ZIPRISTINEk emandako saria

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA Errotalde Jauregia Bergara

EMAIOZU BUELTA ORRIARI...





... EMOIZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



ZIPRISTIN OINETAKOAK
☎ 76 57 36



anezka ☎ 76 59 25



ALDASORO OINETAKOAK ☎ 76 01 18



BERGARA PIEL
☎ 76 20 70



ZUHAIZTI TABERNA ☎ 76 59 22

ESPOLOIKO DENDARIAK

BISITA GAITZAZU

Pala txapelketa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako pala txapelketa apirilaren 18an hasiko da eta parte hartu nahi dutenek apirilaren 14a izango dute izena emateko azken eguna. Aurtengo txapelketan aldagelak egongo dira, Osintxuko liburutegia dagoen tokian.

Osa garaile Uzarragan

Unai Osa (Colchon Laxy) txirrindulariak irabazi zuen jantzean Antzuolan jokaturako jubenilentzako Uzarragara igoera. Bere atzetik Iker Pagola (Iveco) eta Jon Guridi (Kaiku) sailkatu ziren.

Larunbatean Eskolarteko Gimnasia Txapelketa Bergarako Kiroldegian

Larunbatean, apirilak 3, Gipuzkoako Eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketako kanporaketak jokatu dira Labegarrietako Kiroldegian, goizez 10etatik ordu biak arte eta, arratsaldez, 4 terdietatik 7 terdiak arte.

Maiatzaren 15 eta 16an jokatu den finalerako txartela lortzeko asmoz, taldekako kategorian 48 gimnasta arituko dira (6 talde, Bergarako Ariznoa Gimnasia Erritmika taldea tartean) eta banakakoan, berriz, 28 (benjamin, alebin eta infantiletan). Azken honetan, infantil kategorian, Itziar Lopez, Nerea Mendizabal eta Esosi Artetxeberria bergarrek hartuko dute parte.

Izaskun Agirregabiria eta Maribi Berraondo taldeko zuzendaritzakoen esanetan, "taldeak



60 neskatila ari dira Ariznoa Gimnasia Erritmika taldean.

gaur egun momentu ona bizi du. 60 bat neskatila ari dira gure taldean eta maila aldetik ere pozik egoteko arrazoiak ditugu. Amaia Torre eta Nerea Osinalde benjaminetan, Ainhoa Unamuno alebinetan eta, era berean, alebinetako taldeak Eskolarteko Txapelketako finalerako sailkatzea lortu dute eta, horrez

gain, Gipuzkoako Txapelketan [apirilak 17 Eibarren] beste bost neskatilak jokatu dute".

Astean 6-8 orduko entrenamenduak egiten dituzte Eva Arevalillo, Ana Gallastegi eta Elena Herrerros entrenatzaileen agindutara eta Alicia De Cesar da lan guzti hori gainbegiratzen duen entrenatzailea.

Aukerekin oraindik

Gipuzkoako Kopa Txapelketan alebin, infantil eta kadetetan final laurdenetara heldu eta Gipuzkoako Ligan sei onenen artean sailkatu ondoren, Bergara K.E.ko pelota sailak Deba Arroko pelota txapelketa jokatzeari ekin dio. Lehen buelta amaitu ondoren, emaitzak ez dira espero bezain onak izan eta infantiletan jadanik ez dute aurrera jarraitzeko aukerarik.

Jubeniletan (Samaniego-Muruamendiaraz) eta seniorretan (Oregi II-Oruesagasti) aldiz, orainarteko martxa zuzendu beharko dute bergarrek. Apirilaren 18an Soraluzeren aurka jokatu dute.



IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

YAZKI

UME GAZTE
Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73



Mariaren Lagundiko ikasleak

Gorbata eta guzti, dotore-dotore orraztuta agertzen diren neskatilok 1954. urte inguruan Mariaren Lagundian zebiltzan ikasleetako batzuk dituzue. Hamar urte inguru zituzten garai hartan. Hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Beheko ilaran: Pili Bilbao, Ana Luisa Santamaria, Adita Gallastegi, ezezaguna, Itziar Sesma, Marimar izeneko bat, Mari Tere Arriaran eta Milagros Inziarte.

Erdiko ilaran: Lourdes Elorza, Maribel Garralda, Nere Villar, Mari Kontxi Ilarduia, Itziar Amenabar, Mari Glori Elkoroberezibar, Loli Barrena, Kontxi Barrena, Ana Mari Urkizu, Lourdes Beistegi, Pili Eguren, Blanca Diaz de Zerio, Rosa Mari Larrañaga, Mari Angeli Agirrebeña, Coro Belio, Arantxa Imaz eta Rosa Mari Odriozola.

Goiko ilaran: Maria Ines Lazkano, Mari Karmen Lete, Maria Isabel Arregi, Rosa Mari Elkoroberezibar, Nere Amaia Osinaga, Itziar Muruamendiaraz, Angelines Garikano, Juanita Otaño eta Maria Isabel Garitano.

Estepan Plazaola

Argazkiak: Maria Ines Lazkano



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

MINER

Ardo onak,

ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52. Eguerdian edo gauean.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Pisua alokatzen da Zurraderon. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldia, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

Garajea salgai Urrats azpian. 1.200.000 pzta. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

DENETARIK

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Eskiatzeko botak (44a) eta **Snow-Board** eskiatzeko tabla salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Kanping denda salgai (haundia). ☎ 76 26 73

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (Ian orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Egunero Bergaratik Zornotzara joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etzeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauez) edota 79 82 10 (egunez).

Errekuperatutako eta berriztutako altzariak salgai. ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

Ileapaindegiko altzari eta lan tresna guztiak salgai. la berriak. ☎ 76 25 38 / 76 23 37.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software dun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pzta. ☎ 76 45 21 (Jabi).

LANA

Neska batek edozein motatako **lanak** egingo lituzke. ☎ 76 38 90.

AutoCAD, FP2 Informatikan praktiketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta Interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Etxean lan egiteko aukera ematen dizugu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

Hildakoak

Vicente Mujika Lamariano

martxoak 25, 77 urte

Jose Castro Ortiz

martxoak 27, 82 urte

Angel Martinez Arrese

martxoak 28, 73 urte

Victoriano Ormazabal Amezaga

apirilak 1, 67 urte

Jaiotakoak

Iosu Agirre Royo

martxoak 23

Amaia Santorcuato Labaien

martxoak 28

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

PELI NARBAIZA IBARZABAL



Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57



BILBAO ASEGURUAK

OROTARIKO ASEGURUAK

Agentea Bergaran: IÑIGO JUARISTI ETXEBERRIA

BULEGO BERRIA BERGARAN:

Artekale, 18 behea BERGARA. Tfnoa eta faxa: 76 08 71

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:

Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:

Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA